

## Armada garaiezin eta Lezo

XVI. mendean, europar potentziak beraien arteko etengabeko liskar sutsu eta odoltsuetan zebiltzaten, norgehiagoka, bakoitzak, aldamenekoak baino lurralderik haundiago-



ak lortu nahiean. Espainiarrek Ameriketako inperio haundia eta zabala zeukatenez gero, ingelesek eta frantziarrek, gehienbat, aurrekoen interes ekonomikoen suntsitzeari ekin zioten. Aipaturiko bi nazio hauetako itsasontzi kortsoek, aberastasunez betetako espainiar galeoiak erasotzen zituzten beren Espainiarako bidean, beren tripulazioak akabatuz edo bahituz erreskate onuragarri baten esperantzetan, eta beren urre eta zilarrezko zamak lapurtuz. Kortsoena negozio borobila zen, eta mingain gaiztoek ziotenez, Ingalaterrako erregina zen Tudorreko Ixabel bera, ez omen zegoen negozio zikin hauetatik oso urrun.

Bestalde, aipatu beharra dago ere, ingelesek espainiar okupaziozko agintarien aurka matxinatutako abertzale flamendarrei emandako laguntza interesatua eta espainiarren elkartua eta Eskoziako erregina zen Maria Estuardoren exekuzioa izan zirela kortsoen erasaldiekin batera, ingeles eta espainiarren arteko ezinegona berotu zutenak, eta Espainiako Felipe II. erregeari Ingalaterra konkistatzeko asmoz, armada ikaragarri haundi baten eratzeari ekiteko ideia eman ziotenak.

1588. urterako, espainiarren "Armada Haundia" izenarekin bataiatutako eskoadra pronto zegoen, Felipe II.-aren ametsak betetzeko prest. 130 naoz eta 29.453 gizonen osaturik zegoen, eta hasiera batean bere agintea Alvaro de Bazan-en eskuetan jarririk bazegoen ere, honen heriotza bortitzaren ondorioz, aldatzeko beharrean aurkitu ziren, aginte berria itsas borrokaldietan horren iaio ez zen Medina-Sindoniako kontearen eskuetan ipintzeko.

Gipuzkoa eta Bizkaiak, euskal foruak zin egin zituen espainiar erregearekin koroa-hitzarmena deiturikoa zuten gero, eskoadra, bana bidali zuten, "Armada Haundia" izenekoaren barruan kokaturik, Ingalaterrako inbasioan parte hartzeko. Bizkaiko Armada 11 itsasontziz, 6.567 tonaz eta 2.800 gizonen osaturik zegoen eta Gipuzkoakoa berriz, 14 itsasontziz, 6.991 tonaz eta 2.698 gizonen. Bizkaiko Armada Joan Martinez Errekalde almirantearen agindupean jarri zuten eta Gipuzkoakoa, Migel Okendo almirante donostiarraren menpean. Egiaren ohorez, esan beharra dago Bizkaiko Armada zeritzanaren itsasontzi eta gizonen erdiak behintzat, gipuzkoarrak zirela. Beraz, esan dezakegu bat ere bildurrik gabe, Gipuzkoa izan zela nagusi zorigaiztoko itsas ekitaldi honen eratzeko eta osaketan. Osora, euskal armada 25 ontzi eta 5.408 gizonen osaturik zegoen.

Ikus ditzagun bi armadak osatzen zituzten itsasontzien izenak:



### BIZKAIKO ARMADA

Santiago  
Maria Joan  
Maddalena  
Konzepzion Nagusia  
Konzepzion Txikia  
San Joan  
Santa Maria Montemayorkoa  
Manuela  
Maria (1)  
Maria (2)  
Santa Isabel

### GIPUZKOAKO ARMADA

Santa Ana (ontzi kapitaina)  
Santa M<sup>a</sup> Arrosakoa (ontzi almirantea)  
San Salvador  
Santa Barbara  
Santisteban  
Santa Marta  
San Buenabentura  
Maria San Joan  
Santa Krutz  
Dontzella  
Asunzion  
San Bernabe  
Guadalupeko Ama  
Maddalena

Baina 1688ko udazken partean, Ingalaterra erraz konkistatuko zuelakoan abiatu zen armadak ezin izan zuen bere helburua bete, ezbeharreko ekaitz haundiek eta Drake eta Howard ingeles kortsoen erasoaldiek ustegabeko porrotara eraman bait zuten. Ekaitzek sakabanatu egin zituzten ontziak, zenbaitu urperatuz eta gehien gehienak kalte haundiekin utziz. Sakabanturik eta kalteturik, ingeles erasoer aurre egiteko gauza ez zirenez gero, itzultzeari ekin behar izan zioten, itsasoa eta Ingalaterrako itsasertzeak arrastoz eta gorpuz josirik utziz. Ingelesek ustegabeko garaipena eskutan zutelarik, eta etsaiaz trufatu nahian, gaur egun ezagunagoa den "Armada Garaiezina" izenarekin berbataiatu zuten Felipe II.-aren armada garaitua

Galerak izugarri haundiak izan ziren, bai ontziz, bai diruz, eta bai gizonez. Euskaldunoi dagokigunez, 128 hildako izan genituela esan beharra daukagu; Horietatik sei, lezoarrak zirelarik. Azaleko konparazio azkar bat eginez, esango dugu Errenterian 38 gizon galdu zituztela, Pasaian 35, Oiartzunen 36, Hondarribian 9, Irunen 27 eta Donostian 128. Lehen esan dudan bezala, Lezok sei gizon galdu zituen, eta heriotz hauen ondorioz zenbait lagun gelditu ziren pobrezian, inolako diru iturri edo sostengurik gabe: alarguntsa bat, bi umezurtz, lau guraso edadetu eta zehaztu gabeko beste bi senide. Felipe II.-ak eskaturik, eta 1589ko azaroaren 21ean sinaturik dagoen Frantzisko Mandojana Zarate korrejidorearen txostenean, Gipuzkoako hildako eta galerak herriz herri aztertzen dira. Lezoari dago-kionez honela dio:

*"E despues lo suso dicho en la villa de San Sebastián a quinze días del mes de henero de mil e quinientos e noventa años, el dicho licenciado Aranburu para aberiguación de lo contenido en la dicha çedula rreal hizo llamar a paresçer ante si a Juanes de Helorça e Martin de Gabiria, vezinos de lugar de Leço, de los cuales... tras el juramento y respuesta a la pregunta general, certifican la muerte de los siguientes hijos Leço:*

*– Joan de Çabalaga, vezino de Leço, marinero de la nao San Salvador de Juanes de Aguirre, vezino de la villa de Tolosa, de la esquadra del capitan Miguel de Oquendo, murio en dos de agosto del año passado de mill e quinientos e ochenta y ocho al tiempo que en el conbate que se tubo con el enemigo yngles predio fuego en çiertos varilles de polbora con que velo mucha gente y entre ellos el dicho Joan de Çavalaga, donde murio, dexo a su muger viuda con dos muchachos de poca hedad pobres e con mucha neçesidad.*

*– Miguel de Ynuurruçcu, vezino de Laço, marinero de la dicha nao San Salvador, del dicho Juanes de Aguirre,*





*bolo con los demas al tienpo de la quema de la dicha nao en el combate del Canal cuatubo con el enemigo en la costa de Yngalaerra a dos de agosto del dicho año de mill a cuinientos y ochenta y ocho, dexo padre biejo y pobre.*

*– Martin de Aurella, vezino de Leço, grumete de la dicha nao San Salvador, del dicho Juanes de Aguirre, volo con los demas en la dicha nao a los dos de agosto de 98, el qual dexo a sus padres biejos y pobres.*

*– Hernando de Aranheder, vezino de Leço Fasje, de la dicha nao San Salvador, del dicho Juanes de Aguirre, murio en Lisboa de enfermedad que tubo por el mes de mayo de ochenta y ocho antes que la armada saliese para Yngalaterra, dexo a sus padres pobres.*

*– Juanes de Joanmarindegui, vezino del dicho lugar de leco, gromete de la nao del dicho Ochoa de Goyaga nonbrada Maria Joana, de la esquadra de Juan Martinez de Brecalde, murio en la mar despues que dieron la buelta de yngalaterra a 29 de septiembre del año 88, dexo a su madre biuda e vieja, con hijas pobres y con mucha necesidad.*

*– Tomas de Apaezyarça, vezino del dicho lugar de leço, marinero de la dicha nao Maria Joana del dicho Ochoa de Goyaga, hombre soltero murio el mismo dia 29 de septiembre de 88 en la mar de enfermedad que tubo en el galeon San Joan, almiranta rreal adonde se mudo perdida la nao dicho Goyaga, dexo una hermana pobre.*

*Los quales dichos marineros a personas espresadas y declaradas en los capitulos de suso mançionados saven estos dichos testigos y es verdad publico e notorio peresçieron a murieron en las dichas naves”.*

Sei dira beraz, Lezok porrot haundi hartan galdu zituen semeak: Joanes Zabalaga, Migel Inurruzu, Martin Aurela, Hernando Araneder, Joanes Joanmartindegikoa –Gaintxurizketan dagoen izen hori daraman baserriko semea–, eta Tomas Apaizartzakoa –izen berako gaintxurizketar baserrikoa–.

Lezok, badu bere oraina eta bere geroa, baina baita bere iragana ere, batzutan beltza, bestetan gorria, zoriontsu zenbaitetan, trixte eta goibel besteetan, oraintxe aipatu berria dugun Armada Garaiezinarena azken hauetako bat dugularik.

#### **ERABILITAKO ITURRIAK:**

1." Ernest J. Gorlich" *"Historia del mundo"* (1967)

2." Joxe Iñazio Telletxea Idigoras" *"Otra cara de la Invencible.*

*La participación vasca"* (1988)

**JOSEBA PRESENTACION BARANDIARAN**